


Bi anai



Bernardo Atxaga

Bilduma: Narratiba, 148

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 112

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2023-09-30

ISBN paperezko edizioa: 978-84-9109-918-5

Materia: Helduentzako literatura

Edizio berria

EROSKETA
AUKERAK

Paperezko edizioa

17,00 €

Kritika Saria Narratiba 1985

Etengabe errepikatzen den naturaren eta bere sasoen gurpilean Paulo eta Daniel bi anaien istorioa kontatzen digute animaliek: txoriak, katagorriek, sugeak eta antzarak. Urtea joan urtea etorri, beti bestelako eta aldi berean beti berdin ageri da Obabako irudimenezko lurralde hori, baina, gizakien arteko handinahi, irrika eta grinaren agertoki krudela da. Paulo eta, batez ere, Daniel anaia atzeratua dira giza-krudelkeria horren biktimak.

Gizakiok errenditzen gaituen naturaren lege zaharrea bildurik, Paulo eta Danielen munduko ibilera itogarriek bat egiten dute animalien fabulen munduarekin, eta irakurlearengan efektu zoragarria lortzen gainera: ihesaren eta kontsolazioaren sentipen askatzailea.

Zail da asmatzen nork jarri duen gehiago bere aldetik, irudimen handiko idazleak ala dohain handiko kontalariak; izan ere, oso gutxitan bezala egokitzen baitzaio bata besteari. Eraitza paregabea da. Artista handi baten lana

Bernardo Atxaga



Joseba Irazu Garmendiaren goitizena da. Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta hainbat lanbidetan aritu izan zen (euskara irakaslea, irratiko gidoilaria, liburu-saltzailea, ekonomialaria, etab.), harik eta, azkenik, laurogeiko hamarkadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte. Liburuok argitaratu ditu, beste hainbaten artean: *Bi anai* (1985), *Obabakoak* (1988, Euskadi Saria, Espainiako Premio Nacional de Narrativa, IMPAC European Literary Award sarian finalista), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995), *Soinujolearen semea* (2003, Grinzane Cavour Saria, Mondello Saria, Times Literary Supplement Translation Prize saria), *Zazpi etxe Frantzian* (2009) eta *Nevadako egunak* (2013). Bere obra, 34 hizkuntzatan irakur daitekeena, zinemara eraman dute Montxo Armendarizek (*Obaba*, 2005), Aizpea Goenagak (*Zeru horiek*, 2006), Imanol Rayok (*Bi anai*, 2011) eta Fernando Bernuesek (*Soinujolearen semea*, 2019). Euskaltzain oso da, eta Erlea aldizkariaren zuzendaria.

<http://www.atxaga.eus>